

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

5175

AGINDUA, 2023ko azaroaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez seigarren aldiz aldatzen baita agindu hau: Agindua, 2012ko abuztuaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartu zen. Ondoren, agindu horretan aldaketak egin dira, betiere zerrenden kudeaketa eraginkorragoa, bateratuagoa eta operatiboagoa errazteko, irakasleek bete beharreko lanpostu guztiak urtero betetzeak eskatzen dituen espezifikotasunak kontuan hartuta, bai eta kudeaketa sortzen ziren premia berrietara egokitzeko ere.

Komeni da testu berri bat onartzea, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduan egin diren aldaketa guztiak jasoko dituen eta bertan jasotako zenbait berrikusiko dituen. Hala ere, une honetan ikusten da beharrezkoa dela, 2023-2024 ikasturteari begira, erregulazioa egokitzea Lanbide Heziketako irakaskuntzei dagokienez, kontuan hartuta onartu direla abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena, eta martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoa, Lanbide Heziketa antolatu eta integraztekoa, Lanbide Heziketako irakaskuntzak berrikusi eta eraldatzeko xedez, zeinak, besteak beste, irakaskuntzako funtzio publikoaren antolamendua osatzen duten kidegoei eragiten dien. Hala, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa desagertzekotzat jotzen da, Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidego berria sortzen da, eta hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren esparruan irakasten duten irakasleen espezialitateak berrantolatzen dira. Kidego berri horretan Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoari atxikita zeuden 10 espezialitate baino ez dira sartzen, eta gainerakoak Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igarotzen dira. Horren guztiaren ondorioz, aurreikusten da Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzea 3/2020 Lege Organikoaren hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako titulazio-baldintzak betetzen dituzten Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoko, desagertzeaz dagoen kidegoko karrerako irakasle funtzionarioak, 2026ko urtarrilaren 19ra arte, eta karrerako gainerako funtzionarioak aipatutako desagertzeaz dagoen kidego horretan mantentzea.

Beraz, adierazitako arau-aldaketek hautagaien zerrenden kudeaketa arautzen duen araudia egokitu beharra dakarte, sortu berri den kidego berria eta Lanbide Heziketako espezialitateak dagozkien irakasleen kidegoetan berrantolatzea aurreikusiz, agindu honen II. eranskinean aurreikusitakoaren arabera. Era berean, III. eranskinean, Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidego berriko espezialitate jakin batzuen zerrendetan, sarbidea eman dezaketen unibertsitatez kanpoko titulazioak zabaltzen dira (Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren titulazioak), urriaren 4ko 800/2022 Errege Dekretuan hautaketa-prozesuetarako aurreikusitakoaren ildotik (800/2022 Errege Dekretua, urriaren 4koa, Iraungi beharrezkoa den Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoko irakasleak, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan integratzea arautzen duena eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleei buruzko zenbait

errege-dekretu aldatzen dituen). Dena den, kontuan hartu behar da hautagaien-zerrendetan sartzeko hautaketa-sistema titulazio jakin batzuk izatean soilik oinarritzen dela.

Agindu honen xedapen gehigarriari dagokionez, aurreikusten da hautagai guztiak berrantolaketak eragindako lanbide-heziketako espezialitateetako zerrendetan mantentzea, dagokien irakasle-kidegoari dagokionez, baina aurreikuspen espezifiko bat jasotzen da III. eranskinean aurreikusten ez diren unibertsitatez kanpoko tituluak dituztenentzat, zeinak 2025-2026 ikasturtera arte egongo baitira zerrendetan, karrerako funtzionarioentzat aurreikusitakoaren ildotik, baina hautagaiak Hezkuntza Sailarekin lotzen dituen behin-behinekotasun-ezaugarrietara egokituta.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren arabera (uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren bidez onartua), jarraibideak aldean artean negoziatuta eguneratu behar dira, eta baldintza hori negoziazio sektorialaren bidez bete da.

Hori guztia dela eta, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8. Artikuluaren 1. apartatua aldatzea («Hautagaien zerrendetan sartzeko baldintza espezifikoak»).

8. artikuluen 1. Apartatua aldatzen da («Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoak»), eta honela geratzen da idatzita:

«8. artikulua.— Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoak.

1.— Jarraian zehazten diren tituluak izatea honako zerrenda hauetako taldeetarako:

a) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza: maisu/maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakaslearen edo Lehen Hezkuntzako maisu/maistraren titulua, edo dagokion gradu-titulua.

b) Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa (Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko espezialitateak), Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakaskuntzak, Musika Irakaskuntza, Arte Dramatikoko eta Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzak eta Arte Plastikotako eta Diseinuko Irakaskuntzak (Arte Plastikotako eta Diseinuko irakasleen kidegoko espezialitateak): doktore-, lizentziatu-, ingeniari- edo arkitektu-titulua edo irakaskuntzaren ondorioetarako horien baliokide den gradu-titulua edo beste titulu baliokide batzuk.

c) Lanbide Heziketa (Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoko espezialitateak): diplomatura, arkitektura teknikoa, ingeniaritza teknikoa edo gradu titulua, lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura edo Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren beste titulu batzuk, irakaskuntzarako baliokidetzat jotakoak.»

Bigarrena.— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8. artikuluko 3.2 apartatua aldatzea («Hautagaien zerrendetan sartzeko baldintza espezifikoak»).

8. artikuluen 3.2 apartatua aldatzen da («Hautagaien zerrendetan sartzeko baldintza espezifikoak»), eta honela idatzita geratzen da:

«3.2.— Lanbide Heziketako espezialitateetan, zeinen zerrendetan sartzeko aski baita irakaskuntza-ondorioetarako baliokide aitortu diren unibertsitatez kanpoko titulazioak izatea,

hautagaiak halako titulazio baliokide bat badauka, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna betetzat joko da, goian adierazitako kasuetan nahiz honako kasu hauetan:

- Irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduan aurreikusitakoaren arabera, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 100.2 artikuluan eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokidea duela egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.
- 2014ko irailaren 1a baino lehen, behar bezala baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan bi ikasturte osotan edo, bestela, hamabi hilabetez jarraian edo etenka irakastea ari izana, dagozkion maila eta irakaskuntzetan.»

Hirugarrena.— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 33. artikuluen laugarren apartatua aldatzea («Zerrendaren espezialitatea kontuan hartzea lanpostu jakin batzuetara deitzeko»).

33. artikuluen laugarren apartatua aldatzen da («Zerrendaren espezialitatea kontuan hartzea lanpostu jakin batzuetara deitzeko»), eta honela geratzen da idatzita:

«4.— Lanbide Heziketako irakaskuntzei dagozkien espezialitateetako lanpostuak, Zereginen Ikaskuntzarako Geletan kokatuta daudenak, lanpostuaren profilari erantzuten dion espezialitateko zerrendan dauden pertsonekin beteko dira. Lanpostua betetzea borondatezkoa izango da.»

Laugarrena.— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren I. eranskineko («Merezimenduen baremoa») A) ataleko 5. oharra aldatzea.

I. eranskineko («Merezimenduen baremoa») A) ataleko 5. oharra aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«5.— 2.2. eta 2.3. ataletan ez dira kontuan hartuko maila bakoitzean sartzeko oro har eskatzen diren ondorengo titulazioak:

- Haur eta Lehen Hezkuntza: maisu-maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakaslearen edo Lehen Hezkuntzako maisu-maistraren titulua edo dagokion gradu-titulua.
- Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa (Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko espezialitateak), Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntzak (Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoko irakasleentzat gordetako irakasgaiak), Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakaskuntzak, Musika Irakaskuntzak eta Arte Dramatikoko eta Dantzako goi-mailako arte-Irakaskuntzak: doktoretza, lizentziatura, arkitektura edo ingeniari-titulua edo dagokion gradu-titulua.
- Lanbide Heziketa (Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoko espezialitateak): diplomatura, arkitektura teknikoa, ingeniari-titulua edo dagokion gradu-titulua.

Adierazitako titulu-etako bat baremaziotik baztertuta, hautagaia dagoen zerrendako mailaren arabera, dituen gainerako tituluak barematuko dira.

Hautagaiak bera dagoen zerrendaren mailarako goian aipatu diren titulu bat bera ere ez badu, bai, ordea, zerrenda horretan sartzeko aukera ematen duen maila baxuagoko bestelako tituluren bat, azken hori ez zaio barematuko, eta hautagai horrek dituen gainerako tituluak zenbatuko dira.»

Bosgarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren I. eranskineko («Merezimenduen baremoa») B) atalaren lehenengo paragrafoa aldatzea.

I. eranskineko («Merezimenduen baremoa») B) atalaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«B) Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoari dagozkion espezialitateei baino ez zaie aplikatuko.»

Seigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren II. eranskina («Espezialitateak eta irakasgaiak») aldatzea.

II. eranskina («Espezialitateak eta irakasgaiak») aldatzen da, eta agindu honen eranskinean xedatutakoaren arabera idatzita geratzen da.

Zazpigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskina («Titulazio eta espezialitateen taulak») aldatzea.

III. eranskina aldatzen da («Titulazio eta espezialitateen taulak») eta agindu honen eranskinean xedatutakoaren arabera idatzita geratzen da.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendetan jarraitzea, Lanbide Heziketako espezialitateak berrantolatu ondoren.

Iraungi beharrekoa den Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko espezialitate-zerrendetan sartuta zeuden eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan edo Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegora pasa diren hautagaiak, agindu honen II. eranskinean aurreikusitako berrantolaketaaren arabera, espezialitate horietako zerrendetan mantenduko dira, bai eta urteko birbaremazio-prozesuen ondoren eratuko diren etorkizuneko zerrendetan ere, eta adierazitako berrantolaketaaren arabera izendatuko dira dagokien kidegoan, salbu agindu honen III. eranskinean jasota ez dauden unibertsitatez kanpoko titulazioak dituzten hautagaiak. Azken kasu horretan, zerrenda horietan jarraituko dute 2025-2026 ikasturtea amaitu arte, eta hortik aurrera bertan jarraitzeko eskubidea galduko dute.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hala ere, lehenengo, bigarren, seigarren eta zazpigarren atalek baita xedapen gehigarri bakarrak ere 2023ko irailaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak, eta laugarren eta bosgarren atalek 2024-2025 ikasturterako zerrenden birbaremazio-prozesutik aurrera izango dituzte ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 7a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

ERANSKINA, HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN AZAROAREN 7KO AGINDUARENA

II. ERANSKINA

ESPEZIALITATEAK ETA IRAKASGAIAK

A) HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA.

MAISU-MAISTREN KIDEGOA.

Irakasgaiaren kodea	Izena
0950	Haur Hezkuntza
0951	Lehen Hezkuntza
0952	Euskara
0953	Aholkularia
0954	Ingelesa
0955	Frantsesa
0956	Gorputz Hezkuntza
0957	Musika
0958	Hezkuntza Berezia: Pedagogia Terapeutikoa
0959	Hezkuntza Berezia: Entzumena eta Hizkuntza
0982	Erljio Katolikoa
1080	Hizkuntza indargarria

B) BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA.

B.1.– BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA.

Irakasgaiaren kodea	Izena
0102	Frantsesa
0103	Ingelesa
0104	Alemana
0105	Euskara IRALE
0106	Euskara eta Euskal Literatura
0108	Erljio Katolikoa
0124	Geografia eta Historia
0126	Latina
0127	Grekoa
0131	Musika
0132	Filosofia
0133	Italiera
0134	Gaztelania eta Literatura
0146	Kultura Klasikoa
0202	Fisika eta Kimika
0205	Ekonomia
0224	Matematika

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Irakasgaiaren kodea	Izena
0237	Informatika
0239	Marrazketa
0255	Biologia eta Geologia
0256	Hezkuntza Orientabidea
0298	Laneko prestakuntza eta orientabidea
0327	Gorputz Hezkuntza
0401	Teknologia
0986	Curriculum desberdinak eratzeko Hizkuntza eta Gizartea
0989	Curriculum desberdinak eratzeko Zientifiko eta Teknologikoa
1501	Enpresen administrazioa
1502	Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa
1503	Elikagaien industriako prozesuak
1504	Nekazaritzako ekoizpen prozesuak
1505	Arte Grafikoetako prozesuak eta produktuak
1506	Ibilgailuak mantentzeko prozesuak eta antolamendua
1507	Eraikuntza zibilak eta etxegintza
1508	Fabrikazio mekanikoko proiektuak eta antolamendua
1509	Energia-sistemen proiektuak eta antolamendua
1510	Sistema elektroteknikoak eta automatikoak
1511	Sistema Elektronikoak
1512	Ostalaritza eta Turismoa
1513	Komunikazio-prozesuak eta komunikabideak
1514	Zurgintzako eta altzarigintzako prozesuak eta produktuak
1515	Nabigazioa eta Itsas Instalazioak
1516	Ehungintzako, Jantzigintzako eta Larrugintzako Produktuak eta Prozesuak
1517	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak
1518	Analisi eta Kimika industrial
1519	Osasun-Prozesuak
1520	Prozesu Diagnostiko Klinikoak eta Produktu Ortoprotesikoak
1521	Esku hartze soziokomunitarioa
1522	Akuikulturako prozesuak
1541	Administrazio-kudeaketako prozesuak
1542	Merkataritza-prozesuak
1543	Elikagaiak elaboratzeko eragiketak eta tresneria
1544	Nekazaritza-produkzioko Eragiketak eta Tresneria
1547	Eraikuntza-proiektuen bulegoa
1548	Fabrikazio Mekanikoko Proiektuen Bulegoa
1549	Bero eta Fluido Ekipoen Instalatzeko eta Mantentze Lanak
1550	Instalazio Elektroteknikoak
1551	Tresneria Elektronikoak
1554	Irudiaren eta Soinuaren Teknikak eta Prozedurak
1555	Informatika- sistemak eta -aplikazioak
1556	Laborategia
1557	Prozesu-eragiketak

Irakasgaiaren kodea	Izena
1559	Makinak, Zerbitzuak eta Produkzioa
1566	Prozedura Diagnostiko Klinikoak eta Ortoprotesikoak
1567	Osasun- eta Laguntza-prozedurak
1568	Gizartearentzako Zerbitzuak
1570	Hazkuntza eta Laborantzako Instalazioak eta Ekipoak
1581	Helduen Hezkuntza: Gaztelania eta Literatura
1582	Helduen Hezkuntza: Ingelesa
1583	Helduen Hezkuntza: Euskara
1584	Helduen Hezkuntza: Frantsesa
1585	Helduen Hezkuntza: Ezaguera Zientifiko Teknikoaren Esparrua
1586	Helduen Hezkuntza: Gizarte Ezagueraren Esparrua
1970	Hizkuntza-indargarria

B.2.– LANBIDE-HEZIKETAKO SEKTORE BEREZIETAKO IRAKASLE ESPEZIALISTEN KIDEGOA

Irakasgaiaren kodea	Izena
1545	Arte Grafikoetako Produkzioa
1546	Ibilgailuen Mantentze-lanak
1552	Sukaldaritza eta Pastelgintza
1553	Jatetxe arloko Zerbitzuak
1558	Arotzeriako eta Altzarigintzako Fabrikazioa eta Instalazioa
1560	Makinen Mekanizazioa eta Mantentze-lanak
1561	Soldadura
1562	Patroigintza eta jantzigintza
1563	Estetika
1564	Ile-apainketa

C) HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAK

HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALEKO IRAKASLEEN KIDEGOA

Irakasgaiaren kodea	Izena
0750	HEO Ingelesa
0751	HEO Frantsesa
0752	HEO Alemana
0753	HEO Euskara
0754	HEO Errusiera
0755	HEO Espainiera
1756	HEO Italiara
1757	HEO Portugesa

D) ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASKUNTZAK.

D.1.– ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASLEEN KIDEGOA.

Irakasgaiaren kodea	Izena
1607	Marrazketa artistikoa eta kolorea
1608	Marrazketa teknikoa
1609	Barrualdeen diseinua
1612	Diseinu grafikoa
1620	Materialak eta Teknologia: Diseinua
1621	Ikus-entzunezko baliabideak
1623	Industria-antolamendua eta legeria
1625	Bolumena
1627	Informatika-baliabideak: Diseinu grafikoa
1628	Informatika-baliabideak: Barrualdeen diseinua
1702	Artearen Historia
1729	Argazkigintza

E) MUSIKAKO IRAKASKUNTZAK.

MUSIKAKO ETA ARTE ESZENIKOETAKO IRAKASLEEN KIDEGOA.

Irakasgaiaren kodea	Izena
801	Pianoa
802	Biolina
803	Biolontxelo
804	Harpa
805	Gitarra
807	Biola
808	Kontrabaxua
810	Oboea
811	Klarinetea
812	Fagota
813	Saxofoia
814	Tronpa
815	Tronpeta
816	Tronboia
817	Tuba
818	Txistua
819	Kantua
829	Akordeioia
831	Organoa

Irakasgaiaren kodea	Izena
851	Perkusioa
858	Musikaren historia
875	Gitarra elektrikoa
879	Zi instrumentuak
881	Musika-hizkuntza
883	Korua
896	Klabezina
911	Zango-biola
912	Zeharkako flauta
913	Moko-flauta
914	Errenazimentuko eta Barrokoko Hari pultsatua
917	Konposizioaren oinarriak
922	Orkestra
1802	Baxu elektrikoa

F) ARTE DRAMATIKOAREN ETA DANTZAREN GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA ARTISTIKOAK

MUSIKAKO ETA ARTE ESZENIKOETAKO IRAKASLEEN KIDEGOIA.

Arte Dramatikoaren Goi-mailako ikasketa artistikoekin zerikusia duten irakaskuntza-espezialitateak	
Irakasgaiaren kodea	Izena
1116	Akrobazia
1117	Arte dramatikoari aplikatutako kantua
1118	Karakterizazioa eta jantziak
1119	Arte dramatikoari aplikatutako dantza
1120	Ebakera eta ahozko adierazpena
1121	Zuzendaritza eszenikoa
1122	Dramaturgia
1123	Espazio eszenikoa
1124	Interpretazioa
1125	Literatura dramatikoa
1126	Teknika eszenikoak
1127	Artearen teoria eta historia
1128	Antzerkiaren teoria
1129	Dantza klasikoa
1130	Dantza garaikidea
1131	Dantzaren historia

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Arte Dramatikoaren Goi-mailako ikasketa artistikoekin zerikusia duten irakaskuntza-espezialitateak	
Irakasgaiaren kodea	Izena
1132	Dantzarako errepertorioa pianoarekin
1133	Konposizio koreografikoa

ERANSKINA, HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN AZAROAREN 7KO AGINDUARENA

III. ERANSKINA

TITULAZIOEN ETA ESPEZIALITATEEN Taulak

A) HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA KIDEGOA: MAISU-MAISTRAK

Espezialitateak	Tituluak
HAUR-HEZKUNTZA 950	- Maisu-maistraren titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED). - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, espezialitatea: Eskolaurrea. - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Filosofiako eta Letretako (Hezkuntza Zientzietako atala) edo Filosofiako eta Hezkuntza Zientzietako (Hezkuntza Zientzietako atala) lizentzien Eskolaurreko Hezkuntzako edo Eskolaurreko Pedagogiako espezialitatea. - Gradua Haur Hezkuntzan.
LEHEN HEZKUNTZA 951	- Maisu-maistraren titulua, Lehen Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED). - Maisu-maistraren titulua (1440/1991 ED), edozein espezialitatetan. - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, edozein espezialitatetan. - Lehen irakaskuntzako maisu-maistraren titulua (1967ko plana). - Gradua Lehen Hezkuntzan.
EUSKARA 952	- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Euskal Filologia espezialitatea. - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa Euskarari. (Ikus 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena – EHAA, 2010-11-15, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskaraz maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko dena – EHAA, 2012-04-16). - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentzia Euskal Filologian edo Gradua Filologian (Euskara), Gradua Euskal Filologian edo Gradua Euskal Ikasketan. - Gradua Lehen Hezkuntzan gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa Euskarari. (Ikus 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena – EHAA, 2010-11-15, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskaraz maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko dena – EHAA, 2012-04-16). - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentzia Euskal Filologian edo Gradua Filologian (Euskara), Gradua Euskal Filologian edo Gradua Euskal Ikasketan.

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Especialitateak	Tituluak
AHOLKULARIA 953	- Maisu-maistraren titulua, Hezkuntza Bereziko espezialitatea (1440/1991 ED). - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Hezkuntza Bereziko espezialitatea. - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentzia Psikologian, Pedagogian, Psikopedagogian edo balioideetan. - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Gradua Psikologian edo Pedagogian. - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Hezkuntza Berezian, Hezkuntza Premia Berezietan edo Pedagogia Terapeutikoan. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentzia Psikologian, Pedagogian edo Psikopedagogian. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Gradua Psikologian edo Pedagogian.
ATZERRIKO INGELES 954	HIZKUNTZA: - Maisu-maistraren titulua, Atzerriko Hizkuntzako (Ingelesa) espezialitatea (1440/1991 ED). - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Ingeles Filologiako espezialitatea. - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentzia Ingeles Filologian edo Gradua Ingeles Ikasketetan, Hizkuntza Modernoetan (Ingeles Ikasketak) edo Lizentzia, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa). - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea atzerriko hizkuntzan (Ingelesa) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). - Gradua Lehen Hezkuntzan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentzia Ingeles Filologian edo Gradua Ingeles Ikasketetan, Hizkuntza Modernoetan (Ingeles Ikasketak) edo Lizentzia, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa).

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Espezialitateak	Tituluak
ATZERRIKO FRANTSESA 955	HIZKUNTZA: - Maisu-maistraren titulua, Atzerriko Hizkuntzako (Frantsesa) espezialitatea (1440/1991 ED). - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Frantses Filologiako espezialitatea. - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Agindua eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). - Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentzia Frantses Filologian edo Gradua Frantses Hizkuntzako Filologian edo Lizentzia, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Frantsesa). - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea atzerriko hizkuntzan (Frantsesa) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Agindua eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). - Gradua Lehen Hezkuntzan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Agindua eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentzia Frantses Filologian edo Gradua Frantses Hizkuntzako Filologian edo Lizentzia, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Frantsesa).
GORPUTZ HEZKUNTZA 956	- Maisu-maistraren titulua, Gorputz Hezkuntza espezialitatea (1440/1991 ED). - Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentzia edo Diplomatura Gorputz Hezkuntzan edo Gradua Jarduera Fisikoaren eta Kirol Jardueraren Zientzietan. - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Gorputz Hezkuntzan. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentzia edo Diplomatura Gorputz Hezkuntzan edo Gradua Jarduera Fisikoaren eta Kirol Jardueraren Zientzietan.
MUSIKA 957	- Maisu-maistraren titulua, Musika Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED). - Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + 617/1995 Errege Dekretuko goi-mailako titulua edo balioideak. - Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentziaduna Musikologian edo Musikaren Historian eta Zientzian. - Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + 1/1990 Lege Organikoko edo 2/2006 Lege Organikoko musikako titulu profesionala.

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Espezialitateak	Tituluak
MUSIKA 957	- Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Musikako Goi Ikasketak (631/2010 ED). - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Musikan. - Gradua Lehen Hezkuntzan + 617/1995 Errege Dekretuko goi-mailako musikako titulua edo baliookideak. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziaduna Musikologian edo Musikaren Historian eta Zientzietan edo Gradua Musikaren Historian eta Zientzietan. - Gradua Lehen Hezkuntzan + 1/1990 Lege Organikoko edo 2/2006 Lege Organikoko musikako titulua profesionala. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Musikako Goi Ikasketak (631/2010 ED).
PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA 958	- Maisu-maistraren titulua, Hezkuntza Bereziko espezialitatea (1440/1991 ED). - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Hezkuntza Bereziko espezialitatea. - Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentzia Psikopedagogian edo Filosofia eta Letretan, Pedagogiako atala, Hezkuntza Bereziko azpiatala edo Pedagogia Diferentziala azpiatala edo dagokion parekatzea (1983/11/07ko Agindua). - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Pedagogia Terapeutikoan, Hezkuntza Berezian, Hezkuntza Premia Berezietan edo Hezkuntza Premia Espezifikoetan. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentzia Psikopedagogian edo Filosofia eta Letretan, Pedagogiako atala, Hezkuntza Bereziko azpiatala edo dagokion parekatzea (1983/11/07ko Agindua).
ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA 959	- Maisu-maistraren titulua, Entzumena eta Hizkuntza espezialitatea (1440/1991 ED). - Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Logopediako diplomatura edo Logopediako gradua. - Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Entzumenean eta Hizkuntzan. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Diplomatura Logopedian edo Gradua Logopedian.
ERLIJIO KATOLIKOA 982	- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Egokitasun Adierazpena + Erljio Agintaritzaren Proposamena. - Gradua Lehen Hezkuntzan + Egokitasun Adierazpena + Erljio Agintaritzaren Proposamena.

Espezialitateak	Tituluak
HIZKUNTZA-INDARGARRIA 1080	Adierazitako titulua + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa (ikus 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, 2010/11/15eko EHAA): - Maisu-maistraren titulua, Lehen Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED). - Maisu-maistraren titulua (1440/1991 ED), edozein espezialitatetan. - Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, edozein espezialitatetan. - Lehen irakaskuntzako maisu-maistraren titulua (1967ko plana). - Gradua Lehen Hezkuntzan.

2023ko azaroaren 17a, ostirala

B) BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA
B1.– KIDEGOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK

Espezialitateak	Tituluak
FRANTSESA 0102	a) 1. kidesuna Lizentziaduna: - Frantses Filologia - Filologia: Filologia Erromanikoaren atala (frantsesa) - Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Frantsesa) Graduduna: - Filologia (Frantsesa) - Hizkuntza Modernoak (frantsesa) - Hizkuntza eta Literatura Modernoak (lehen hizkuntza frantsesa) / (frantsesa-ingelesa) - Hizkuntza Erromanikoak eta Literaturak (frantsesa) - Ikasketa Frantsesak - Frantseseko eta Gaztelaniako Ikasketak - Ingelesko eta Frantseseko Ikasketak - Ikasketa Frankofono Aplikatuak - Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Frantsesa) - Itzulpengintzako beste titulazio batzuk (lehen hizkuntza frantsesa) b) 2. kidesuna Lizentziaduna: - Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Frantsesa) - Filologia (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntzalaritza* - Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste hizkuntza batzuk)* - Arte eta Humanitateen adarreko edo Gizarte eta Lege Zientzien adarreko beste Lizentzia batzuk** Graduduna: - Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Frantsesa) - Filologia (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntzalaritza* - Hizkuntza Modernoak (beste aipamen edo ibilbide batzuk)* - Hizkuntza Modernoak eta Kudeaketa*

Espezialitateak	Tituluak
FRANTSESA 0102	- Hizkuntza eta Literatura Modernoak (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntza Erromaniakoak eta Literaturak (beste aipamen edo ibilbide batzuk)* - Hizkuntza Aplikatuak* - Beste hizkuntza batzuetako ikasketak* - Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste hizkuntza batzuk)* - Itzulpengintzako beste titulazio batzuk (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntza Zientziak eta Literatur Ikasketak* - Arte eta Humanitateen adarreko edo Gizarte eta Lege Zientzien adarreko beste Gradu batzuk** *Gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). **Gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak.
INGELESA 0103	a) 1. <u>kidetasuna</u> Lizentziaduna: - Ingeles Filologia - Filologia: Anglomaniarren atala - Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Ingelesa) Graduduna: - Filologia (Ingelesa) - Hizkuntza Modernoak (Ingelesa) - Hizkuntza eta Literatura Modernoak (lehen hizkuntza Ingelesa) / (frantsesa-Ingelesa) - Ingeles Ikasketak - Ingelesa - Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Ingelesa) - Itzulpengintzako beste titulazio batzuk (lehen hizkuntza Ingelesa) b) 2. <u>kidetasuna</u> Lizentziaduna: - Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Ingelesa)

Especialitateak	Tituluak
INGELES 0103	- Filologia (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntzalaritza* - Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste hizkuntza batzuk)* - Arte eta Humanitateen adarreko edo Gizarte eta Lege Zientzien adarreko beste Lizentzia batzuk** Graduduna: - Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Ingelesa) - Filologia (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntzalaritza* - Hizkuntza Modernoak (beste aipamen edo ibilbide batzuk)* - Hizkuntza Modernoak eta Kudeaketa* - Hizkuntza eta Literatura Modernoak (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntza Aplikatuak* - Beste hizkuntza batzuetako ikasketak* - Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste hizkuntza batzuk)* - Itzulpengintzako beste titulazio batzuk (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntza Zientziak eta Literatur Ikasketak* - Arte eta Humanitateen adarreko edo Gizarte eta Lege Zientzien adarreko beste Gradu batzuk** *Gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingeleseko B2 maila edo goragokoa. maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). **Gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingeleseko C1 maila edo goragokoa. maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).
ALEMANA 0104	c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen balioak diren tituluak. a) 1. <u>kidetasuna</u> Lizentziaduna: - Aleman Filologia - Filologia: Anglogermaniarren atala - Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Alemana)

Espezialitateak	Tituluak
ALEMANA 0104	Gradua: - Filologia (Alemana) - Hizkuntza Modernoak (alemana) - Hizkuntza eta Literatura Modernoak (lehenengo hizkuntza alemana) - Ikasketak Alemaniarrak - Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Alemana) - Itzulpengintza beste titulazio batzuk (lehenengo hizkuntza alemana) b) 2. <u>kidetasuna</u> Lizentziaduna: - Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = alemana) - Filologia (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntzalaritza* - Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste hizkuntza batzuk)* - Arte eta Humanitateen adarreko edo Gizarte eta Lege Zientzien adarreko beste Lizentzia batzuk** Graduduna: - Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = alemana) - Filologia (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntzalaritza* - Hizkuntza Modernoak (beste aipamen edo ibilbide batzuk)* - Hizkuntza Modernoak eta Kudeaketa* - Hizkuntza eta Literatura Modernoak (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntza Aplikatuak* - Beste hizkuntza batzuetako ikasketak* - Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste hizkuntza batzuk)* - Itzulpengintza beste titulu batzuk (beste hizkuntza batzuk)* - Hizkuntza Zientziak eta Literatur Ikasketak* - Arte eta Humanitateen adarreko edo Gizarte eta Lege Zientzien adarreko beste Gradu batzuk** *Gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). **Gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen balioak diren tituluak.

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Espezialitateak	Tituluak
EUSKARA (IRALE) 0105	a) <u>1. kidesuna</u> Lizentziaduna: - Euskal Filologia - Gradua Euskal Filologia, Gradua Euskal Ikasketetan, Gradua Euskal Hizkuntza eta Kultura. b) <u>2. kidesuna</u> Lizentziaduna: -Filologia (euskal filologia izan ezik) edo Itzulpengintza eta Interpretazioan, gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa euskararen (ikus 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena - EHAA, 2010-11-15, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen dena (EHAA, 2012-04-16). - Gradua Filologia (euskal filologia izan ezik) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa euskararen (ikus 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena - EHAA, 2010-11-15, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen dena (EHAA, 2012-04-16). c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak.
EUSKERA ETA LITERATURA 0106	a) <u>1. kidesuna</u> Lizentziaduna: - Euskal Filologia Graduduna: - Euskal Filologia - Euskal Ikasketak - Euskal Hizkuntza eta Kultura b) <u>2. kidesuna</u> Lizentziaduna: -Filologia (euskal filologia izan ezik)* -Itzulpengintza eta Interpretazioa*

2023ko azaroaren 17a, ostirala

Especialitateak	Tituluak
EUSKERA ETA LITERATURA 0106	- Arte eta Humanitateen adarreko edo Gizarte eta Lege Zientzien adarreko beste Lizentzia batzuk** Graduduna: - Filologia (euskal filologia izan ezik)* - Beste hizkuntza batzuetako Ikasketak* - Hizkuntza Modernoak* - Hizkuntza Modernoak eta Kudeaketa* - Itzulpengintza eta Interpretazioa* - Arte eta Humanitateen adarreko edo Gizarte eta Lege Zientzien adarreko beste Gradu batzuk** *Gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa euskarari (ikus 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena - EHAA, 2010-11-15, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzei salbuesteko dena (EHAA, 2012-04-16). **Gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 maila euskarari (ikus 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena - EHAA, 2010-11-15, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzei salbuesteko dena (EHAA, 2012-04-16). c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak.
ERLIJIO KATOLIKOA 0108	a) <u>1. kidesuna:</u> - "Eliza Zientzien Goi-mailako Ikasketxeek eman dituzten eta ondorio zibila ezagutzen zaizkien tituluen zerrendan" jasotako tituluak. 16/19/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, unibertsitate mailako Eliza Zientzietako ikasketen eta titulazioen eta Espainiako unibertsitateko titulu ofizialen arteko baliokidesun-erregimen berria ezartzen duena. l. eranskina (2011/11/16ko BOE) + Egokitasun Adierazpena + Erljio Agintaritzaren Proposamena. b) <u>2. kidesuna:</u> - Lizentziaduna, Arkitektoa, Ingeniaria edo Unibertsitateko Gradua + Egokitasun Adierazpena + Erljio Agintaritzaren Proposamena. c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak.

Espezialitateak	Tituluak
GEOGRAFIA ETA HISTORIA 0124	a) <u>1. kidesuna:</u> Lizentziaduna: - Geografia - Historia - Artearen Historia - Humanitateak - Gradua Geografian, Gradua Geografia eta Lurraldearen Antolamenduan, Gradua Historian, Gradua Artearen Historian, Gradua Humanitateetan, Nazioarteko Harremanetako gradua. b) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak.
LATINA 0126	a) <u>1. kidesuna:</u> Lizentziaduna: - Filologia Klasikoa. - Gradua Filologia Klasikoan eta Gradua Ikasketa Klasikoetan. b) <u>2. kidesuna:</u> Lizentziaduna: - Frantses Filologia - Filologia Erromanikoa - Euskal Filologia - Hispaniar Filologia - Ingeles Filologia - Italiar Filologia - Hizkuntzalaritza - Gradua Filologian (euskal filologia, hispaniar filologia, italiar filologia, frantses filologia eta erromaniko filologia) edo Gradua Euskal Ikasketetan, Ingeles Ikasketetan, Italiar Ikasketetan, Hispaniar Ikasketetan, Ikasketa Frantsesetan, Ikasketa Erromanikoetan, Ikasketa Linguistikoetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (aipamen edo ibilbidea Ingelesean, Frantsesean, Hispanikoetan, Erromanikoetan, Italian, Linguistikoa, Literatur Ikasketak). c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak.

Espezialitateak	Tituluak
GREKOA 0127	a) 1. kidesuna: Lizentziaduna: - Filologia Klasikoa. - Gradua Filologia Klasikoan eta Gradua Ikasketa Klasikoetan. b) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen balioak diren tituluak.
MUSIKA 0131	a) 1. kidesuna: - Musikako Goi-mailako Titulua 617/1995 Errege Dekretuan aintzat hartutako edozein espezialitatean. - Uztailaren 8ko 1542/1994 Errege Dekretuaren arabera Musikako Goi-mailako Tituluaren balioak diren titulazio guztiak. Lizentziaduna: - Musikaren Historia eta Zientziak. - Historia, Artearen Historia espezialitatea (Musikologia atala). - Musikologia. - Musikako Goi Ikasketak (631/2010 Errege Dekretua). - Gradua Musikologian, Gradua Musikaren Historia eta Zientzietan. - Goi mailako edozein unibertsitate-titulazio eta irakaslearen titulua izatea, irailaren 10eko 2618/1966 Errege Dekretuaren arabera.
FILOSOFIA 0132	a) 1. kidesuna: Lizentziaduna: - Filosofia - Filosofia eta Letrak, Filosofia atala - Filosofia eta Hezkuntza Zientziak, Filosofia atala Gradua Filosofian, Gradua Giza Zientzietan (Filosofia aipamena). b) 2. kidesuna: Lizentziaduna: - Teologia. - Gizarte eta Kultura Antropologia - Batxilerra Teologian, Gradua Giza Zientzietan (Historia aipamena), Gradua Gizarte Antropologian eta Teologiako Gradua. c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen balioak diren tituluak.

Espezialitateak	Tituluak
